

Vilnius en izandako esperientziaren laburpena eta ohar batzuk.

Lehenik eta behin, gomendatzen dizuedana da, beraiek eskatutako datetan han izatea. ESN taldeak bi eguneko jardunaldiak antolatzen ditu, oso erabilgarriak, informazio pila ematen dute. Fakultatea eta ordutegi kontuak argitu, ISIC txartela egin (han egitea gomendatzen dizuet, garraio zerbitzuarekin lotuta bait dago, argazkiak eraman), herrialdearen berri pixkat jakin, lehen harremanak burutu...

Proiektu edo ikasgaiak, zer egin? Ikasgaiak egitea hobe dela uste dut, nik proiektua egin nuen, eta haseran nahiko arazo burokratiko izan nuen, ikasgaiekin dena argiago dago eta arazo gutxiago izango dituzue. Proiektua egitea erabakitzen baduzute, han topatu beharko duzute tutore bat, eta garbi esan 4 hilabetetarako zoaztela.

Lo lekuaren inguruan, errezena, residentzian tokia eskatzea da, BAINA zein fakultatetan zaudeten jakitea garrantzitsua da, kanpusa hiritik kanpo dagoelako, eta zenbait fakultate hiri barnean (arkitektura, mekanika, elektronika eta letretako batzuk) sauletekio helbidea ez dutenak hiri barnean daude. Kanpusetik hiri erdira 45 bat min autobusez (trafikoagatik). Hiri barnean lo lekua topatzeko hoberena <http://www.aruodas.lt/> jabe gehienek urte osoko kontratua nahi ziaten dute, auzo interesgarrienak (Senamiestis, uzupis, naujamiestis, antalkaino).

Garraio aldetik autobus, trolebus sare izugarria dago arazorik gabe, <http://www.vilniustransport.lt/lt/> Aeroportura bertara 4 linea desberdin iristen dira, aeroportutik tren/autobus (bata bestearen ondoan dago) geltokira badago autobusa baita ere.

Bizitza gauza batzutan gurena baino merkeago dago, arrigarriena, mugikorren tarifak, ESN ek ia egunero antolatzen du zerbait, baita bidai asko ere, beraien agenda jarraituz aukera asko daude. Bidaiatzeko ere nahiko toki onean dago Vilnius. Lituaniarrak beti laguntzeko prest daude, oso edukatuak dira. Temperatura eta hotzaren aldetik... Nik ez nuen Hotz izugarririk pasa, hori bai Gasteizko hotzenak, ia bi hilabetez jarraian izan nituen, Abuztua eta Irailan bero ere bai (30 gradu). Ondo pasa eta gozatu.